

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
88. ZENBAKIA
UZTAILA
DAGONILLA
1985**



**ITXASOA TA ONDARTZA: OSASUNA TA
ATSEDENA, UDALDIKO AMESAK
(ALGORTA)**

JAZOKUN JAKINGARRIAK**EGUNEROKO ORRIA**

ZER onen irakurle guztiak, edo geienak beintzat, ondo ezagutzen daben egutegi apain irakur-garri bat dogu Bizkaia'n aspaldiko urteotan, "Euskarazaleak" alkarteko gizon azkarrak jakituriz da maitekiro idatzi ta antolatuta eta Bizkaiko Aurrezki Kutxa'ren babespean argitaratua.

Eta jakiña! orretarako irarria data, zerbait euskaltzalea dan guztiak egunaro bere orritxua irakurriten dabe. Guk beintzat orretaraxe egiten dogu, jakin-garririk asko orritxu orretan ekarriten dituzalako.

* * *

AZTERTZEN

Bagilla'n bi'garren eguneko orritxu orretan ara auxe irakurriten dogu, galdakanotarrokaz zerbait zer-ikusi dauana: "1.333: Bilbo, Arrigorriaga, Galdakano ta Zaratamo alkartu mugarriak ipinteko".

Eta, Galdakano'ko lurraldeak ondo ezagutzen doguzan lez, eta ez ain txarto beronen edestia, arretaz irakurri ondoren zerbait idatzitea erabagi dogu, ea argibide geiago adierazi al-badogu orretaz.

Guk ezin geinke esan bilketa ori ezin litzakela jazo, baiña, bai jakingarria litzakela zergaitik Bilbo arazo ari dala ta Galdakano'gaz batu zan, bada, aldi aretan Galdakano ez zan Bilbo'gaz mugatutzen. Naita oraingo Etxebarri aldi aretan Galdakano izan, onen eta Bilbo'ren bitartean Begoña'ko Erkala, gure gazte aldira arte beren buru-jabe zana aurkitzen zalako. Eta beraz, Bilbo'k Galdakano'kin ez-eukan mugarri ardurarik.

* * *

PADURA

Egiz, aldi artean Arrigorriaga Galdakano'kin mugatutzen zan, bada, aldi onetako Basauri guztia Arrigorriaga zalako. Baiña, ez dakit zer mugarri ardurarik eukiko eben, Ibaizabal ibaiak bananduten zituzalako gaurko Basauri lez.

Orraitiño ba'litzake aldi artean gaur-egungo Zaratamo Arrigorriaga'rena izatea, bada, Zaratamo'ko parrokia sortu arte, Arrigorriaga edo antziñako Padura izan zan, ez dakigu ziur noiz arte baiña bai luzaroan.

* * *

LAU ERRI

Aldi onetan be Galdakano'k ez dau Arrigorriaga'kin mugatutzen, bion bitartean Zaratamo'ko lurralde luzengea daukielako, naita Upo'ko gaillurretik urbil aurkitzen diran erri orren lurraldeak: Esate baterako Segismundo basatxonu inguruetan; baseleizatxu orren jabe Arrigorriaga, Zaratamo ta Zeberio egiten diralarik.

Ez askotzaz geiago Bilbo'gaz Ganguren mendi-lerroan Sarkaldean, Abril mendi-gallurrerako bidea artzen dan landatxuan, Ganguren zear gatozela jakiña! bitxabala gurutzuten dan lekuan.

Berton aurkitzen da mugarri landu bat lau erriren izena dauala; Bilbo (len Begoña), Etxebarri, Zamudio eta Galdakano.

* * *

MUGAKIDEAK

Iru erri orreititik beste zortzi erriren lurraldeekin mugatutzen da mutikotatik geiago gure biziterri dan Galdakano zabala. Ona emen zeintzuk dira eurok, aipatu doguzan beste iruretik gaiñera: Lezama, Larrabetzu, Zornotza, Etxano, Lemoa, Bedia, Zeberio, Zaratamo eta Basauri.

Eta beraz, amaika erriren bitartean edo orreikaz mugatutzen dala aurkitzen da Galdakano'ko Santxo'k erri lez sortu eban antziñako Erkal au, bada, orretara izan ei zan Eleiz-aurrea, Anteiglesia izan baiño lenago.

* * *

GALDAKANOTARRAI

Ba-dakigu gure irakurle askorentzat garrantzi aundirik izango ez dabena gure lerro oneik, askori ez dautselako ezer esaten bear bada, baiña, bai uste dot galdakanotarrentzat, jakin bear diran edesti-zatitxu batzuk diralako idatzi doguzanak.

Atsegingarri izango al-yakez, besterik ez bada, euroi.

JAI ETA OPOR!

ERRIETAN ETA AUZOETAN

Urtearen bira luzearen barruan, etorri jaku aurten be jai eta opor egiteko sasoia.

Jai errietan eta jai eleizetan, jai etxeetan eta jai enparantzetan! Eta zergatik jai? Sasoia dalako, beste batzuk be egiten dabelako, gure gogoak eta soñiak bear dabelako... zergaitik edo agaitik, baiña jai!

Erri bakoitxak eta auzo bakoitxak bere santu zaindaria jai egiteko eta jai-egunetan erriaren barruan, zurezko kutxa apaindu baten lez, giltzapean dagozan ainbeste oitura, dantza, abesti, bertso, joko ta jolas argitaratzeko... Jai-egunai jai-antza emon bear jake!

* * *

OPOR-ALDIAK GUZTIENTZAT

Jaiak dauken antzeko elburua dauke opor-aldiak be: Urte guztiko lanaren estutasunak eta inguruko giroak gure gogoaren sendotasunari atalak kentzen dautsoz eta gure gorputz indartsua be makaldu egiten dau... eta galdutako dana ber-eskuratzeko, jaiakaz batera, opor-aldiak bear, opor-aldiak gura.

Eta bear-izana ez danean, oikera edo moda bat izango da, baiña opor-egunak artu bear, opor-aldiak izan bear. Besterik ez ba'da, auzokoak eta lagunak baiño gitxiago ez izateko, baiña, ori bai, opor-aldia artu!

* * *

EUSKALERRIAN NAIZ ERBESTEAN

Eta zer egin olor-aldi orreitan?

Mundua ezagutu. Gaur lenago baiño askoz ibiltariagoa biurtu jaku gizona!

Batean egazkiña artuta ibilketa ariñetan, bestean norberaren berebilla artuta erririk erri, uririk uri, urrengoan trenan izan daitela eroale eta ibillaldi bake-tsuagoak egingo doguz...

Euskalerriaren barruan, ainbeste ikusgarri ikusten, edo Euzkadi'tik kanpora beste izkuntza ta izakera bateko gizakiakazko artu-emonetara... Opor-aldia da eta goazen, ikustera, ibiltera, mundua ezagutzera.

* * *

MENDIRA NAIZ ITXASORA

Ibilteak aspertu gaituanean, gitxiago ibilli eta izadia goatzera joango gara: Ondartzara, are beroaren gaiñean berotzeko naiz ur ozkirriaren barruan gozotasuna aurkitzeko; mendi-gaiñeetara, ikuspegi ederak ikusteko, aize garbia birikietara sartzeko, kutsadura alboratzeko, izadi biziagaz artu-emonetan atsegintsu ta alai biziteko. Goazen ondartzara! Goazen mendira!

Egia da oikera au ez da ain bizi izan gure giroan urte batzuk dirala, baiña lana be ez da izan aspaldion dan lakoa, dana aldatu da, saille batzutan onerako beste batzutan txarrerako, baiña sasoian sasoikoa!

* * *

UDALDI ZORIONTSUA!

Udaldi atsegintsua opa dautsegu ba gure irakurleai, opor-aldi pozgarriak eta egokiak. Eta ZER beronek be udaldi onetan opor-aldia izango dau eta uztailleko zenbaki au artu ondoren, ez da besterik izango irailera arte.

EUSKALDUNBARRI IZATEA

Gaiari jarraitzen, euskeraz ikasi eta ondo erabiltzea erreza ez dala esan dagikegu baña ez bere zailtasunagaitik gure nagikeriagaitik baño.

– Euskeraren ikasketa ikasleentzat, edozein gudaren garaipena lez izan bear da eta mailarik-maila irabastea lortu bear dogu euskaldunbarriok. Guda baten bezela gogorra da borroka eta gure indarra eta alegiñak atara bear doguz, baña maila bakoitza amaitzean, eta lortu doguna aztertzean, gure belarrietara eltzen dana ulertzen badogu eta erantzun aal badogu, gozotasunak eta atsegiñak betetzen gaitue.

– Ikusi dogun lez gudari bereziak gara euskeraz ikasten gabiltzanok eta gudari izan ezkerok, gogor jo eta ke emon bear datsoguz idazteei eta itz-egiteari. Naiz eta bildur izan, naiz eta lotza izan, danok burrukarik politenean gabiltzala pentsatu bear dogu -ta lortuko dogula odolik eta lergailurik jaurti barik.

– Zer lortuko dogun ez dakizuela? Auxe da; Gure nortasuna, askatasuna, eta batasuna batez be, orrez gañera, euskalerrriaren jakintza ezagutzea, burujabetasuna zer dan ondo ulertzeko.

“Baña nik (esango dau batek) urte asko daroat euskeraz ikasten eta itz-egitea ondiño ez dot lortu, naiz eta geure izkuntza maitatzen.”

Zure semea be, maite dozu baña ez maite bakarrik, zure lana, alegiñak, loaldiak eta indarra be eskeintzen dautsozuz. Ugari dira euskera asko maite dabela esaten dabenak, baña “agur”, “egunon” edo “eskarrikasko” baño ez dabe ikasi, eroso bizi gura dabelako. Orreik ez dabe euskera benetan maite, biotzez maite dauanak jardun eta jardun jarraitzen dau denborari jaramonik ez egiten.

Geure izkuntzarengan sartzeko eta sustraietara sartzeko ez dago urterik eta il arte ikasi dagikegu.

BIOTZ-JAUBEA

Mendi aldapean, pagadi azpean
lañoz eztalduta, basetxe zarra;
arpegi alaia, barriz zurituta,
zugatzak lorean, bere inguruan.

Itxasoko orruak, araña eltzen dira;
izontzi-gizonen oldospen, ametsak
eta itxaropenak, duaz eurekaz.

¿Zer dauko etxe orrek
euzko baster baten eskutatua,
gizonen biotza betetako osoro,
munduko anditasun danak, aitzuta?

* * *

Uri andiko kaian, orain lotu dira.
Delako benetan ikusgarria,
danak lurreratu, ikustiarren ba;
bera da bakarrik itxasontzian.

Ezpeitik gabe, ango atsegiñetan
biar-sari danak, banatuko dabez
bere lagunak.

Paper-zorrotik atara ta gero,
beitu banan-banan argizkitxuak.
¿Zein da ume zoli, argia, potolo,
andra gazte baten belaunbieten,
begiak dizditsu, aboan irria,
maitekero ikusten? Bere semia.

UTARSUS

BIZKAIERARI

Denborari eskatzen dautsat
ain arin ez joateko,
urteak ariñegi doaz
ta nik lan egin bear dot.

Menperatu nabe lanak,
sendiak eta lagun,
eta zuretzat astia
beti ikusten dot urrun.

Ezerk ez nau ni alaitzen
artu zindudanetik,
nire astia zuri emon
gura dot nik bakarrik.

Ederrena zeu zarala
diñot lekuetatik,
maitemindurik nagola
esaten dauste niri.

PALMIK

EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA ETIOPI

Munduko Laterrien artean aipatuenetakoa dogu egunotan Etiopi. Afrika'ren "adarrean" dago; Itxaso Gorri eta Indiar-Itxas-Zabala alkartzen diran tokian.

Lurralde zabala da bere 1.121.900 kilometroekin; geiena arri ta arkaitzeko mendi garaiak eta ondarrezko lekaro zelaia. Ludiko lurrik txiroenetakoa.

35 milloi bizi dira bertan; enda askotako jendeak; indartsuenak, eta Laterrian agintzen dabena, abisinitarrak. Aipatzekoak dira, gaur gudan dabiltzan eritrearrak ere.

Eritre eta abisinitarrak, naiz azalez oso beltzaranak, jende zuria dira; gaiñerako guztiak beltzak.

Askotasun berdiña sinispenei buruz ere: Abisiniarrak kristauak dira bostgarren mendea ezker; gaiñerako guztiak edo maometarrak edo jentillak.

Kristauak ere zatiturik dagoz: Geienak Kopziar-Elizako bereizi edo zismatikoak dira. Ta 6.000.000, kato-likoak. Ain zuzen egin berria dau Kardenal Aitasantuak, Etiopi'ko Uruburu dan Addis-Abeba'ko goigotzaia: Tza-dua Jauna.

* * *

Ezaguna da guretzako oraitsu arte ABISINI esan yakon Etiopi'aren azken-aldiko edestia: Mossolini'k eraso utsanetik gaur-egunarterakoa. Adiñean sartuxamarrak diranak oroituko dabe Haile Selassie agintariaren izena.

Lur aren antziñako edestia ez zaigu ain ezaguna. Ona atalik nagusienak:

— Kristo jaio baiño milla urte leenago, Ejipto artu eben etiopiarrek. Orduangoa da, etiopiarren ustez Menelik I'a, aien ustez Salomon erregearen eta Saba'ko erregeiñaren semea. (Menelik aren oiñordekoak dirala esan oi dabe beti Etiopi'ko Erregeek).

Aldi artan iritxi ziran Etiopi'ra semiar jendeak (semitak) eta bertan bizitzen jarri. Aien ondorengoak ote dira gaur oraindik bertan bizi diran judutarrak?

Kristoren aroko I mendean "Apostoluen Egiñak" aipatzen dauskue Etiopi, Felipe'k ango erregeiñ Kanda-ze'ren serbitzari aundiki bat bataiatu ebala esanaz.

IV mendean Prumentzi Deunak kristautu zuan lurralde ura. Arrezkero kristua izan dira abisiniarrak.

VII mendean maometarrak iritxi ziran; eta ordudanik borroka beltzean ibilliak doguz an kristauak eta maometarrak. Gaur, batzuk aiña dira besteak, ez bait da Etiopi'n jentil askorik.

XVI mendean iritxi zan bertara Gama'ko Basko portugaldarra. "Jon Apraizaren Jaurerria" esaten eutsoen portugaldarrek Etiopi'ari: "O reino do Preste Joao". (Bertakoek, "Negus Negusti" esan dautsoe Inperatoreari: "Erregeen Errege").

XIX mendean (1874'ean) koloni bat ezarri eben italiarrak Etiopi'ko itxasertzean, II Jon "Negus" zala. Asi ziran asarreak, eta 22 urte geroago, 1896'ean, zearo menderatu zituan II Menelik Negus'ek italiarrak Adua'ko borrokaldi odoltsuan. Etiopi'ren askatasuna ontzat artu ondorean. Eritrea'n eta Somali'n, gelditu ziran italiarrak.

Gure denboran, II Ludi-Gudua amaitu ondorean, Laterri iare egin zan Somali, eta Etiopi'ri eman yakon Eritrea, bertako biztanleen naimenaren aurka. Ortik sortua da gaur oraindik an bizirik dagoan gudua.

* * *

Orain, komunista da Etiopi'ko jaurlaritzia. Agintaritzia, beste bazter guztietan bezala, indarkeria-bitartez artu eben komunistek. Diktatore nagusia, Mosku'ren esanera, Menghistu Haile Mariam jenerala. (Militaristak dirala bazter guztietan komunistak!)

Iru arazo dauz konpondubearrak komunismoak Etiopi'an:

1.^a GOSEA. Munduko gosarik aundiena. Milloika il dira goseak an. Ala're badirudi dirurik geiena, gosea arintzen ez baiña, Eritrea'ko abertzaleak zapaltzeko izkillu-erosketan, urtzen daula Jaurlaritzia komunistak. Mundu guztitik bidali yako dirutan eta janaritan laguntza; Mundu iaretik, jakiña; mundu komunistak izkilluak eta gudariak bakarrik bidali bait dautseez. Millaka dira oraindik an, komunismoa zutik eusteko, Kuba, -ta beste Laterri komunistetako gudariak: millaka asko, Eritrea'z gaiñera, Jaurlaritzaren aurka gudan bait dago Tigré deritzan probintzi zabala ere. Bada gaiñera, Komunistek, gosea arintzeko artu duten laguntza, guda bizkortzeko ez ote daben erabiltzen!

2.^a GUDUA. Tigre'ko guda, politikazko guda da. Ez, Eritreakoa. Eritrea'k askatasuna gura dau. Ta, emen gure artean "independentzia" oiuka dabillen komunismoak, tiroka ukatzen dautso askatasuna Eritreari. Len ere esana dogu emen E.E'k eta H.B.'k aipatzen daben "independentzi" ori askatasuna ez dala, "proletarien diktadura" besterik ez dala. Beraiek ere esan dabe ori bein baiño geiagotan.

3.^a JUDUTARRAK. Iñork ez daki noiztik dagozen judutarrak Etiopi'n bizitzen. Endaz, abisiniarrek baiño beltzaranagoak dira.

Beste egunen batean esango dogu zerbait judutar auen edestiaz. Gaurkoz bedi au naikoa: Sudan bitarteko zala, Israel, judutar oiek Israel'era eramaten ari zan. Millaka asko, goseak erdi-ildako gizakumeak, bizia salbatu aal izan dabe, era ortan. Israel'en. Baiña izparringi batek, bat batean, zer ari zan gertatzen mundu guziaren aurrean esan dau. Naikoa izan da ori, Etiopi'ko komunistek, igesbide ori judutarrei isteko.

Komunisten ankerkeriak eta izparringilari baten aluke-riak, askatasuna eta bizia kendu dautseez milaka judutarrei.

LENENGOKO "KIMIKU" IKASKETAK INDUTXUN, JESUITETAN

Esan daigun zeozer, gure Euskalerria orain 55 urte, LANGINTZA kontuan, ta baita ere, España guztian.

Sasoi aretan España zan 100 etik 60 % nekazaria, edo lurrean lana egiten ebana.

Ez egoan orain beste ola edo EGINTZA txiki. OLA aundi batzuk bai, batean ta bestean baegozan, adibidez: A.H. de Vizcaya, Unión Cerrajera de Mondragón, Patrio de Legazpia, Alfa de Eibar ta abar.

1930'etik aurrera edo Republika denporan asi ziran lantegiak ugaritzen.

Zergaitik? Ara emen erantzun errazoikoak.

Lenago ez zan orain bezela SENDIA, ain URRIA edo eskasa. Orduan SENDI bakoitzean izaten ziran 8,10; ta geiago seme-alaba.

Etxerako ez zan bear bat baiño, ta beste guztiak norako izaten ziran?

Batzuk joaten ziran Amerikarantz, beste batzuk MORROI bezela, ara edo ona, ta beste batzuk senitarteko EGINTZETARA, ta abar.

Legez, nagusia etxean gelditzen zan. Ta beste guztiak zer?

Gu izan giñan 80 inguru lengusu bereziak.

Gure artean, lengusuak ikusi dabez, ludi guztiko lurrak ta itxasoak, baiña era edo sasoi orretan jentea asi zan bertan bearra aurkitzen.

LANGINTZA UGARIAK

Era orretan gazteak ASMAU eben, beintzat toki edo erri askotan, euren artean alkartu ta aurkitu BALTZA edo kapitala, senide artean edo lagunen artean, ta GIZARTE bat egin.

Onelan asi ziran orain nagusi diran OLA asko eta beste batzuk UTS egin dabenak be bai.

Sasoi orretan, perretxikuak basoan sortzen diran bezela urtetan ziran olak edozein tokian.

Dan dana lanen puruz, izerdi askogaz, borondate aundiagoaz, orduari begiratu barik, gau ta egun lana eginda.

Geienetan LANTEGIAK aurrera urtetan eban, ta ondo bizi nai eta lan ugaria egin.

Ala ta be jentea oso pozik bizi zan ta guztiz alai.

Baiña gauza bat egoan argi ta garbi: Orduko mutillak edo langilleak nai ta GOGO onena euki, nai ta adoretuak izan, EZ EUKIEN AZIERA aundirik; euren AZIERA, oso eskasa zan.

Gai orretan UTSUNE aundia egoan, ala ta be "KIMIKU" kontuan.

Orrezaz gañera lau edo sei urteko izardiak, lanak, ukamen guztiak lurperatu ziran emengo guda eldu zanean.

Emengo aurrerapen guztiak KINA jota gelditu ziran.

A izan zan negargarria, ondamedia, ezer-eza.

1945 'AN KIMIKU IKASTEGIAREN ASIERA

Emengo guda amaieran, dana lurperatuta egoan, austuta.

Onezaz ganera jente gazteena, indartsuena, ondoen gertatuta egoana espetxeetan, mendian lanean edo beste batzuk soldadutza betetan.

Oker guztiakaz be, BEARTASUNAK bizkortu egiten dau jentea; orduan gizonak asi ziran lanean len baiño gogorrago, kementsuago adoretuago.

Orain lana egiteko gertaerak be obeagoak ziran ta ugariagoak.

Garai orretan FAGORKO Ikastetxean sortzailleak, DON JOSE MARIK esan eustan: Eibar izango dala, nai ta oker asko izan, edo gora berak, beti EIBAR, euren ikastetxe ona euki dabelako.

Gizon ospetsu onek bere buruan sartuta eukan, langilleak gertatu egin bear zirala, ONURA onena emoteko.

Orra or, zelan ARRASATEN, zelango Ikastetxea sortu eban, aurrenengoa eta onenetaikua.

Onen antzera beste toki askotan sortu ziran ikastetxe eredugarriak.

GAUZZA ELDUTA EGOAN ZERBAIT EGITEKO GURE JESUSEN LAGUNDIAN BE

1945 garren ikastaroan, apal-apal, zarata barik, al eben lez asi ziran "KIMIKU", ikasketak emoten, baiña gabean, langilleak euki dagien abagune edo garai ona,

euren asiera onduteko, lana obeto egin dagien ta geiago irabazteko aldion euki dagien.

1945 kursuan asi zan 85 Ikaslekin.

Dan-danak DUAN asi ziran, bearrezkoai mezede egi-teko.

ASIERAK izaten dira dan-danak gogorrak, gaitzak, apalak.

Indautxuko IKASTETXEA be onelakoa izan zan.

Etxe-azpi baten egin edo gertatu ziran gela nasai bi ta beste gela bat Mekanikarentzako ta Aroztegirako.

Bost urte inguru onelan jarraitu eban. Apurka apurka ondasuna etorri zan.

MENDEZONA'TAR PERNANDO

Jesuiten artean danetarako jentea agertzen da ta gertatuta.


Pernando Mendezona, Gautegizko semea da. 17 urte-gaz Jesuitetan sartu zan. Orain 50 urte dirala abade egin xan; orretarako bere ikasketak amaitu ondoren, emen eta an ikasita.

Bere lenego MEZEA emonda barriro asi zan Lizen-tziatuko KIMIKU ikasten.

Bost urtean amaitu ebazan bere KIMIKU ikasketak, ta 1951'garren urtean Indautxuko ikastolaren ZUZEN-DARI jarri zan.

Ori izan zan lege barruan egoteko.

Saso orretan egoan lege bat: Ezin izan zan Zuzendari Ikastetxe baten Titulua euki barik gaien baten.



Ikasle elektronikoak lanean

Era orretatik onatz garaitu bear izan dau atzerapide, oztopo ta indarka aundiak aldameratu.

Aita Mendezona'gaz laister asi zan ikastetxea aundi-tzen, pasaitzen ta 1953'garren Ikastaroan beste SOLAI-RU bat jaso eben, ikasle geiago izateko ta guztien naia betetzeko.

Aurreko Solairuaren ganean 1959n. urtean beste SOLAIRU akieratu eben ta urrengo bi urteetan beste SOLAIRU bi jaso ta ikastetxea gelditu zan orain dagon bezala.

Onetan osotu zan ikastetxe ori.

Lan guzti ori aurrera eroateko makiñatxo bat buruko min, ta ez bear eukiko eban gure Zuzendariak.

Uste dot laguntzailleak be ugari izango zituala Erlegi-ño TALDETAN buru bakoitza izaten da BURU ELEK-TRONIKA BAT BEZELA, laguntzeko ta dirua aukera-tzeko.

1966'garren urtean beste ATAL bat be geitu eben IKASKETA kontuan ta bear bearrezkoa ganera, oraingo sasoietan: ELEKTRONIKA.

Alan OSOTU zan ikastetxe orren egin bearra.

Lenengoko 85 ikasleak, 1978'garren urtean 1.200'era eldu ziran.

Eskatuten eben ikasle guztiak artzeko toki geiago bear zan, ta beste toki bi ALOGEROTU zituen.

Andik urte batzuetara, barriro lengo lekura batu ziran danak, Indautxuko etxean, ez zalako egiten bear dan beze-la lana.

Aldi onetan, gai bietan KIMIKU ta ELEKTRONI-KAN 550'etik 500'era ikasle dabiltz.

ZER DALATA ALDIZKARI

"ZER'REN"

GAUZA AU ONA?

Lenengoz dakargu Gure Pernando orri onetara, IRA-KASLE ospetsua dalako. Olako Ikastetxe ederra jaso eba-lako txiroari laguntzeko.

Ganera geure artean, Euskerazalean barriztu daua-lako, bere amaren altzoan ikasitako euskerea.

Ez dau edonok ta borondatea euki bear da, ta nobera-tasuneko maitasuna, mutiko bat lez iru urtean, bere euske-re barriztuteko egunero ikastolara etorteko.

Ainbeste lan, buruko min ta ganerako ARDURA guz-tiak ikastetxean itzi da etorri zan Margarita, Andereñoa-ren ikastarora, Euskarezaleen etxera.

ETXEBERRIA'TAR ISIDOR

"TELES" (2n. SARIA)

Telesporo eban izena, baña danak Teles deitzen eutsen.

Abadiño'n jaiua zan, zortzi nebarrebatatik seigarrena. Oso mutil jakin-zalia izatez, baña ikastolara juateko, erreztasun aundirik ez etxian, eta artzai ibilli biarra euki eban, ia amabi urterarte.

San Blas egun baten, Eibar'ko osabea —amaren nebea— txangolari azaldu jakuen etxera, erriko jaiak zirala-ta.

Osaba au, Eibar'en aspaldi ezkondata egon arren, andrearekin bakarrik bizi zan, ondorenik ez da.

Ikusirik onek bere arrebeak, tellazpi baterako, ume geiegi be baeukazela, galdera au egiñ eutson, bazkalondoan, Teles mutikuari, amak be entzuteko eran:

— I, Teles, gura dok nerekin Eibar'en bizitzera etorri?

— Nik bai, baña amak zer esango dau?

Ama ixillik. Orduan, osabeak bere arrebeari zuzenean:

— Eibar'n eskolara juatekotan be ez?

— Ez jakiak ba, baña... olan izatera...

* * *

Andik laster, Teles Eibar'en arkitzen zan, osabaren etxian.

Beriala asi zan angu erri-eskolara juaten be. Abadiño'tik oñarri aundirik ekarri ez eban arren, azkar jarri zan bere adiñekuen mailla bardiñean gaiak ikasten, naiz da erdaraz egin biar, gure zoritxarrez.

Ikastola arrunteko aldía igaro ebanian, "Armeri Eskola"ra aldatu eban osabeak, eta lau urte barru, mekaniko trebe, eta gai barri askoren aztapen onak artuta, atara zan bertatik. Bai laster, lantoki ona aurkitu be, eta lan-saria jasotzen asi. Bere izardiz irabazia eskuetan ikusi ebanian, osabeari eskeiñi eutson.

— Nik, Jainkuari eskerrak, ez jaukat oraingoz, ire diruaren biarrik —erantzun eutson onek—. Ondo baderitxok, bialdu egik zati bat etxera, eta gainerakua gorde euk, egunen baten ezkondu edo egiten ba-aiz be.

Pozik entzun eban Teles'ek osabearen aolkua, eta bai egin be, aldi luzean.

* * *

Zintzo jarraitzen eban Teles'ek bere giza-jokabidean. Alan be, gizon guztiok euki gaitz-sustarrak baitan, eta Teles'en bizitzan be, oietako bat oso nabarmentzen asi zan, zera, arrokeria edo aundi-ustea, bestien buru eta gida-

ri izan-gurea. Orrek bultza-ta, gauza barriak ikasteko griña berakin ekarrelako, garai artan, langillediarri buruz, zabaltzen asi ziran burutapen barriak onartu eta ikasten asi zan. Baña alderdi batekoak bakarrik, ots, gizartekeri edo sozialismuaren aldekoak. Laster egin zan alderdi onetakoen burukide be. Itzaldiak egin, billerak antolatu, aurka-agerpenak eta lan-oporrak oikatu biar ziranian, an agertuko zan Teles, guztien aurretik.

Bere jardunen gaia ez zan izaten beti langilleak jasotzeko antolatua. Laster ekin eutson, Marx'ek olan erakusten ebalata, Elizari erasotzen be, eta ez asi bakarrik, bestieri eredu emoteko edo, sozialkeria, bere ondorio guztiekin, onartuaz amaitu eban.

Eskontzera eldu zanian, bere andragaia, kristau ona zan arren, zera txoratu eban, eta erri-eskontza soilla edo zibilla egitera eroan.

Onoko beste ondorio au be aintzat artu eta izenpetu eban, zera, eriotzako orduan, elizako barik ill, eta gero onetsi bariko lurrean obiratzea.

Bere andrea —Miren Arrate eban izena— beti kezkatu bizi zan, arrezkero, kristiñau izan, eta eskontza Elizaz landa egin ebalako. Beiñ baño geiagotan, agertu eutson Teles'i bere barruan eukan naigabea, baiña onek ez eutson jaramonik egiten.

Naigabea larritasun be biurtu jakon, eta jasan eziñik, andrea makaltzen asi zan, jateko gogoa galtzen, eta azkenarako, bere adiñik onenean, gaixotu eta illtzeko zorian jarri.

Miren Arrate'k bere burua ain gaizki ikusi ebanian, olan esan eutson Teles'i:

— Neriak egin dau, Teles. Zu oindiño gaztia zara eta laster, beste batekin ezkontzeko zoria eukiko dozu. Nik asko maite izan zaitut, eta uste dot, zuk be bai ni. Orain zure maitasunaren azken-agiri lez, mezede auxe eskatzen deutzut. Entzun!: Nik Eliza'ren magalian ill gura dot, eta deitu egiozu erriko abade bateri, aitortuta ill nadin.

— Eskatu beste edozer, baña ori ex deutzut egingo —erantzun eutson, leor leor, Teles'ek—.

Miren Arrate'k negarrari emon eutson. Teles barriz, etxetik urten eta kalera abiatu zan, aurreko ardandegian, bere barruko arra ittetzera.

* * *

Bien bitartian alboko, andriak, oitura eukan lez, ikusalditxoa egin eutson gaixuari, zeozer gura ba-eban galdezka.

—Bai Maria —esan eutson Miren Arrate'k-zure bear naiz. Juan da, esaiozu nere anai Kepa'ri, neregana etortzeko, mezedez, leenbaitleen.

Bai laster ekarri be Maria'k anaia oe albora Miren Arrate'ri. Aura agertu orduko esan eutson berari elizakuak artzeko eukan gogua eta Teles'ek jartzen eutson eragozpena.

—Orrek ez dauka orretarako eskubiderik! —esan— eta beriala jua zan Kepa, abade billa.

Elizgizona eta Kepa itzuli ziranerako, Teles etxian egon, eta onek abadia ikusi ebanian, ate-aurrian jarri eta ez eutson laga barrura sartzen.

Ori zala-ta, izugarrizko ixkanbilla sortu eben, bertan, Teles, alde batetik eta onen koñatua eta abadia bestetik. Auzoak be eskillara burura urten eben, batzuek Teles'en alde, baña geienak aurka, oi u egiñaz.

Asarreak goimaillak artu ebazen; alkarri oratzeraño. Une baten, koñatuak Teles'i lepotik eldu eta lurrera bota eban, bere amorro bizian, berba onek esanaz:

—Bestiak be infrañora eruan nai ba-dituk, eu juango aiz, aurretik, bertara, nere atzaparretatik. Ori esanaz, mingaiña atatzeraño estutu eutson zintzurra. Eskerrak, an egozen iru gizonen artian, oratu eta alkarrengandik banatu ebezela. Teles, lurrean, berbetarako indar barik gelditu zan. Arnas pixkat artu ebanian, eta bere koñatuaren amorruez oartu.

—Egiñ eik gura duana —esan eutson Kepari.

Orduan onek barrura sartzeko keñua egiñ eutson abadiari.

Oean, larri egon Teles'en andreak, doi artu ebazen Azken Ikurtonak. Aitortu eta laster ill zan koittadua.

* * *

Teles ez zan barriro ezkondu. Izan be, andik laster piztu zan Pranko'k sortutako gudea eta ara jua biar izan eban, lenengotik.

Gudaren asieratik, alderdi sozialistaren burukideak, talde aundi baten gidari izentatu eben Teles, eta eginkizun orretan irain eban Irun'go burrukaldian asi eta gudaren azkenara arte.

Naikua gizonki jardun ebala, diñue, bere lanean, baña baita gizurra ugari esanaz be gudariari, "patxistak" laster menderatuko ebezela-ta... naiz da beti atzeraka juaten ikusi bere burua eta bere gudariak. Izan be, olaxen, beti atzeraka, Gipuzkua guztia galdu eben, eta Eibar'eraño eldu. Emengotxe mugetan egin eben egonalditxua: patxistak Arrate'n eta Teles'en aldekoak Santa Kurutz eta Urko anguruan, biak alkarri gogor egiñaz. Ia eten bariko jaurtiketan, jarduten eben egunero bi aldetakoak.

Olan ari ziran baten, Santa Kurutz ondoko luebaki baten, lerkai bat jausi zan, eta Teles'n lagun aundi bat —au be buruzagia— zerraldo bota eban zartadeak. Andik laster egon Teles'ek ikusi eta beriala urbildu zan lagunaren ondora. Sabeleko este guztiak kanpua eukazen zintzilik. Teles'ek, zer dok?, galdetu eutsonian lagunari, onek.

—Neriak egin jok —erantzun eutson.

Berba oneik barru aztindu eutsen Teles'i. Bere andriak esandako itz berberak entzun zituan... Alan be, naikua adore euki eban, lagunaren alde zeozer egiten asteko. Asmo orrekin, eldu eutsonian, lagunak berba aukeratu eban eutsozen:

—Nere laguna ba-aiz, esaixok, or jekideak dauken abadiari, etortzeko mesedez. Aitortu egin nai juat. Baña aurretik lagundu egidak, Arrate'ra begira jartzen. Olan egin da gero, Teles berbera jua zan abadiaren billa, eta bai ekarri be garaiz, lagunaren ondora. Eta Teles'en lagunak.

—An Arrate, an Arraaaateee —esanaz, emon eban asken arnasa, abadiaren ondoan.

Teles iñork ez eban ikusi negarrez une aretara arte.

* * *

Gudea amaitu zan, noizpait be. Teles'ek, milla gorabera izan da gero, Ameriketara jua biarra euki eban. An urte mordo bat igaro ondoren, osasuna makala eta diru gitxikin ba-zan be, Eibar'era itzultzia lortu eban.

Antziña lez, politika arazoetan jarduteko egokitasunik ez eukalako edo, oso ixillik eta bizitza paketsuan irau eban, azkenara arte. Al eban guztian, mendira juaten zan. Makiña bat bidar igo ei eban Ixua, Kalamua eta Arrate aldera be. Egun oietako baten, Ixua'tik beera, Arrate'runtz joiala, bere guda-laguna ill zan lekura jatxi eta antxe egon ei zan, geldi-geldi, arri-zut bat lez, Arrate'ra begira, aldi luzian. Ondoren, zuzenian, Arrate'ra bidia artu ei eban, bide-zabalian zear. Bertako zelaira iritxi zanian ondoeza egin eta lurra jo ei eban.

Inguruan ebillen jendia beriala laguntzera urbildu jakon, eta lurretik jasotzen asi ziranian, Teles'ek makal makal.

—Abadia azkar! —oguzkatu ei eban.

Abadia laster arkitu eben, baña bien bitartian, Arrate'ko Elizpera eruan eben Teles.

Eta, diñuenez, gure Abadiño'tarrari, anditxik deitu ei eutson Zerura, bere andre Miren Arrate'k.

BERGARETXE'TAR JON JOSEBA
(URKO)

SARIKETEA

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN IPUIN-SARIKETEA

Urterik urtera, aurrera doa gure Ipuin-Sariketea. Aurkezten diran lanak geroago ta dotoreagoak dira, baita ugariagoak be.

Egia esan, olako sariketak ugaritu egiten dira eta gaiñera guztiak sasoi baten izaten dira: Jorrail-orri inguruan, baiña pozgarria da guretzat ipuin-idazle ain onak eta ugariak etortea.

ZER'en zenbaki onetan argitaratzen doguz saria irabazi dabena lau ipuiñak. Irakurri begiez astitsu gure betiko irakurleak eta eurak izango dira diñogunaren epailari.

Zoriona, bein eta barrero, irabazleai!

LUR-BARRI (1.º saria)

Menditarra naz.

Gorbei-mendiko magalean jaio nintzan,
eta txikitan,

Gorbei-mendiko gurutzeari begira,
aitari itandu neutsan:

—Aita, mendi-puntara igon ezkerro,
zerua eskuaz arrapatu neike?

Aitak irri-barrez erantzun eustan:

—Gorbei-mendiko gurutzetik, seme,
zerua urrago dago.

* * *

Andia egin nintzanean —mendigoizale nintzan—,

Gorbei tontorrera igon neban (mintzan)?

zerua neurea zalakoan...

Baiña... ames ustela!

Mendi-puntatik zerua gorago egoan, gorago...

* * *

Itxaropena galduta, biotzillun,

gurutz-azpian jesarri nintzan.

Nire buru gaiñean saiak —ego zabalak—

zeru urdiñaren nagusi, aizearen errege,

ara eta ona, biraka nasai egaz,

laiñoakin jolasean eabilzan.

* * *

Ai, saia banintz!!! pentsatu neban...

Zeru nasaian, egoak zabal-zabal,

errege antzera, nasai eta aske,

egaz egingo neuke,

eta laiñoen gaiñera igonda,

zerua neurea litzateke.

Baiña, nire gorputz astunak, tamalez,

lurrari lotuten ninduan,

eta bere pixuak zapalduta,

lur-gaiñean, arrak legez,

arrastaka ibilli bear...

Eta negarrari emon neutsan.

Orduan, aize fin-fin batek,

—ez dakit nondik etorri zan—

bekokian bigun-bigun ukutu ninduan,

eta nire gorputzaren astuntasuna galduta,

ego barik,

neure barruko indarrez, egaz asi nintzan...

Saiak baiño ariñago,

laiñoak baiño gorago...

Gora-goraka, zeru urdiña urratu neban,

eta izarrak bizi diran zabaltasun azkenbakoan,

murgildurik aurkitu nintzan.

* * *

Oi! LUR BARRIAREN edertasun zoragarria!!!

Nire begien zoramena!!!

Nire min motelaz ezin esana!!!

Ango atsegin-itsaso-zabalean itota gelditu nintzan.

Eta ni neu, leengo berbera izanik ere,

neure gorputza galduta nebala, uste neban.

Nire gorputz astun, ustela,

—ez dakit zelan,

illezkor eta bizkor egin jatan.

Oi, LUR BARRIKO mendiak,
edurrez zuri-zuriak,
gizonaren oin zikiñak,
zapaldu eziñak.

Ango itsaso urdin,
kutsu-gabeen,
ni, aizea bezain arin,
olatu gaiñean,
jolasean,

nenbillen antxetakin (antxeta = gaviota).

LUR BARRIAN txoriak ez dabe
zugaitzetan abesten.

Nire biotza —txori biurturik—
nire barruan zegoan beti kantari:
urretxindor, birigarro, kardantxori,
danak batera nintzan ni.

Nire begiak,
dantzan asi ziran landetako lorakin:
pitxi-lora, kamamil, lili eta klabelin...
danak nire begietan, aurrezko dantzan ebilzan,
biraka, arin-arin...

Ene Jaungoiko maitea!

Dantza amaitu gura, eta ezin.

Nire begietan eun milla sorgin!!!

Pozik bizi nintzan. Bai, oso pozik.

Baiña ez neukan lagunik.

Eta nire biotzeko maitasun zuloa, zelan bete?

Nire maitasun egarri bizia non ase?

* * *

Ibilli eta ibilli, mendi-zelaiak begiztatuz,
azkenez, atx baten azpian iturri bat aurkitu neban.
Atx-zulotik urak bor-borka urteten eban.

Ur garbia, argia eta ugaria...

Eta, ene!

iturri ondoan, arri baten gaiñean jesarrita,
“Maitagarri” bat egoan,

Bere ule gorri-luzeak, eguzkitan,
uraren ispilluan, urrezko orraziz orrazketan.

Ene Jaungoiko laztana!

Zein neska, gazte, polita zan!

Eguzki Jaun, Errege Andia.

Maitagarriari aurpegi zuri-gorrian,

erraiñuz, mosu emotean,

begira-begira inbidiz gelditzen zan.

Benetan, Eguzkiaren pareko zan...

* * *

Alako edertasun bardinbakoa ikusita,
ni, guztiz txoraturik,

burua galdurik,

Lurrera jausi nintzan konorte barik.

Eta ni lotan negoala —Zeru ames ederrean—

Maitagarriak ni, bere altzoan artuta,

biotza lapurtu eustan...

Itxartu nintzanean,

irri-barre, gozo-samurrez,

—nik il bear pozez—

esan eustan

“Zure biotza, maite, neuk daukat”

Artu neurea zuretzat”.

(Ipuin onegaz ZERUA zer dan
adierazi gura dot)

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI
("MENDITARRA")

ARPIDETZEKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar

..... kalean (auzoan) zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetzea ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-

txartela, an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ESKALEAREN ERIOTZA (3n. SARIA)

Madalena eta umeak ez euren artu-emon andirik errian.

Euren bizi-modu berezia eroen.

Lea errekan bizi ziran, erritik zerbait aldendu eta urrunduta, erdi uts, erdi lagata egoten zan etxe zar eta arrakalatu baten.

Eskoletara be ez ziran joaten.

Errukiz inguratzeko, iñoiz iru umeak artuta, irurekin ibiltzen zan ama, auzo errietan zear.

Errian agertzen ez zan denporaldiak eukiten zitun.

Eukan bizimodurako ez zan zikin eta loi ikusten. Nun-baitetik baliatzen zan beretzako eta umientzako aña jantzi ta soñeko batzen.

Umeak ez euren gose itxura andirik, nai ta ke usain eta ke kolore baltzeranaz ezagutu.

Bizi narraza igerten jakoen, atsegin eta poz gitxiko bizia, eguna tatarrez bete bear ebenen itxurakoa.

Ez amak, ez umeak, sekula osagillerik ez eben ezagutu.

Euren beraldi eta makalaldiak, ama berberak amakuntza ta erdibitzetan euki zitun lez, Marta "Baltzak" jakin eta osatu eta eratzen zitun.

Auzo erri txiki baten bizi zan sorgiña lako andre igar eta argal a, eta bedar eta ostoen indarrez eta graziz egiten zitun bere egitekoak. Origaitik, senditik etorkion "Baltza" deituraren gain, Marta "Bedar" ez-izena be emoten eutsen. Eta irriz ekiten eutsenean, Marta Bedar, Lekeitio bedarra, esaten eutsen. Bear ba da, bere osagai ta enplastoak ainbat bedarrez beteten zitulako.

Madalena etxean etenda geratu zan baten, deitu eutsen. Lauremiña zalakoan asi jakon lenengoz, ortarako bedar ur eta osabidetan.

Egun batzutara, on itxurarik artzen ez eutsalako, gogortxuago zan erremedio batera jo eban, egokiago zalakoan. Txokolatetan zorriak sartuta emoten eutsazan goizean. Eguerdian, ardaotan. Eta illuntzerako arto bizarrekin egindako urepletan.

Artegatu eta estutu egin zan, ikusi ebalako orrek be beretik atara eragin barik, egun gitxitan argaldu eta indar getuta laga ebala.

Konturatu zan otzen batek artu ebala Madalena eta alborringoa be batu ebala. Eta orretarako larra bedarra emoten asi jakon, birrikak leundu edo garbitu eragiteko asmotan.

Baiña Madalen errukarria, zearo aulduta, auleriak jan eban, berakada bixkor baten.

Azkenean ez zan konturatu bere seme-alabetxuei agur egiteko unea eldu jakonik. Areik be, euren sasi arteko eta ardura bako umetasunean, ez eben amaren azkenik igarri.

Bildurtu egin ziran abadeari deitzen. Kanpairik joteko be ez eben agindu.

Biaramonean, eriotza jakin ondoren, eta etxera gorpu billa joan zanean, abadeak itandu eutsan Marta'ri, ia zegaitik, beretzat baiño geiago zala igarri ondoren, erriko osagilleari deitu ez.

Marta'k erantzun eutsan, ia zergaitik osagilleak eurak, ezer egin al ez dabenetan, bera lako andre ez-jakiñekana gaixoa eroaten lagaten daben. Beragandik osagilleagana jotakoen artean, ez ebala iñor ezagutzen arek osatutakorik. Eta orrelakoen artean, atzamarrekin ezin kontatuala agertuko zitula, abade berberaren amagandik asita.

Asarretu ziran. Bata arrotxo ta bestea zital, bata destaintsu ta bestea petral, amaitu eben euren artekoa.

Gero, bata kutxaren aurretik asi zan kantari eta bestea gorpuaren atzetik, oialpean zelatari.

Negu ateko goiza zan. Egualdi illuna. Likin, laiño eta bustia.

Kanposanturako bidean, apaindura barik, ordu ez-egokian, arin, anda bat.

Abadea, akolitoa ta lau erriko langille, lau kalegarbitzaillek eroandako kutxa.

Atzetik iru ume eta oial baltzez goitik bera estalduriko andratxo igar eta makur bi.

Gizonik ez, serbitzariak besterik.

Iltegira eldu ta bereala, kutxa lepotik eratsi-ala, lurrean eginda egoan zuloan sartu eben.

An laga eta lurrez estalduten asi baiño len, abadeak ezpan-arteko otoi arin bat egin eban latinez:

Umeak, neska bi ta mutil bat, irurak be amabi urtetik berakoak, ez eben negar andirik egin. Muxingak, inkeza bako negarrak.

Andrazkoak ez eben oialik jaso.

Zabaldu be ez eben egin kutxarik azken ikusi bat emon edo azken agurra egiteko,

Lizun usaiña zabaldu zan inguruan.

Egun bat baiño geiagoko illaren ondakiñak, ondo egin

eta josi bako kutxaren lotuera eta tartetatik iges egitean lagaten dabean atsa artu eta zabaltzen zan.

Abadeak berbatxu batzuk esan eutsezan umeei: Ia txo-txo, emendik aurrera zelan konponduten zarien. Zeuon artean eta zeuon auzokoekin.

Roketea kendu eta akolitoari emon eutsan sakristira eroateko aginduz.

Bera, altzakuelloa kendu, paparreko izerdia zapi bategaz batu, buru gaiñea be igortzi eta zigarrotxo bat biztu ta erreten asi zan, ago atsik eztarrian zear ez artzeko.

Laster jaurti eban zuloegilleak kutxa gaiñean, parrastadaka, zuloa egitean alboan bastertu ta pillatuta eukan lurra.

Anda eroantzailleak, berba barik, ixillean alde egiten asi ziran. Batek esan eban orraitio: Azkenean au be geuk jaso eta ekarri bear.

Beste baten erantzuna entzun zan: Txarragorik egiten dogu. Bizien atsa bigunago ete da illena baiño?

Abadeak, Marta'ren ingurutik urtetea: Ia zelako "tuloagaz" bialtzen daustazun eriotzako papera, nire liburuetan agertzeko.

—Botikarioaren bizio paperak be sobre geratu dira orain onentzat, jauna.

—Errezena egiten dozue. Il dala ta or konpon.

—Beste batzuk egiña be ez da gaitza: Paternoster ta amaitu laster.

—Zer da, ba, egin nebana?

—Besterik ezean ume koitadu ta errukarri onei eskupeko bana emon.

Eztarriko garrama zarata entzun edo oartu jakon abadeari. Eta andik aldendu zan.

Lur emontzailleak, lurra jaurti, landu -ta gero:

—Kurutzerik ekarri ete dau iñok?

—Ba eukan kolkoan, erantzun eban alabetako batek.

—Ez, beretzat ez, lur gaiñerako baiño.

Umeak alkarri begira geratu ziran.

Bera izan da ori naiko kurutze, tartetik Marta'k. Emen ez ba da be Josafat'eko zelaian ezagutuko dabe beintzat.

—Asko dakizu.

—Ez dabe esaten, ba, emen dagozan erritar guztiak ormarik ezin billatuta ibili bearko dabela an, lotsatuta, aurreko praille edo monja abitua eukiarren, atzeko estalgarri barik kutxetan bialtzen dituelako?

—Orrek munduan euki naiko lotsari, emengo destain eta zer esanekin. Eta berak eukantxoagaz, afze ta aurreko gonatxoekin bialdu dogu. Beste asko baiño obeto.

Umeak ez eben ezer ulertu. Oraindik bizarra urteteke eukan. Jakin be ez erriko oiturarik.

Beste andratxoak, ordurarte barbarik egin ez ba eban be, umiei begira egon ondoren:

—Guazen emendik, zeuon zorakeriekin "difunteak" bakerik galdu ez dagian be.

Eta umetxoei esan eutsen: Ia, ez daitela gaurkoa izan amagaz gogoratzen zarien azkena. Bera zan erakua ba zan be, eten-etenda laga zenduen eta or azkenean.

Umeak ez eben esaeraren luzetasun eta sakontasunik artu. Oituta egozan lena be antzerakuak entzutera.

Biaramonetik eskean ekin eutsen umeak. Ez eben nai izan iñun sartzerik. Oituta egozan euren erako jatekoak egiten.

Marta'k ikertuten zitun tartean euren etxe zarrean, jantzien bat eroateko. Orretan, ba eukezan laguntzen eutsenak, etxetakoak gordeaz.

Eurak eskale jaio ziran, eskale kozkondu ta eskale biziteko makurtasuna eukan, eskiñi eutsezen laguntza guztien gain.

Ez ekien aitaren barririk. Orraitio amaren itzalik ez eben galdu. Eta amaren esana gordeten eben: Eskale bai, lapur ez.

Ori izan zan amari eskiñi eutsen kurutzerik onena. Eta tartetan, loratxoak eroaten eutsezan kanposantura.

ZUBIKARAITAR AUGUSTIN



GOAZEN GASTEIZERA ZELEDON IKUSTERA (4n SARIA)

Urte batzuk dirala, ez asko, Basaurin, sendi bat egoan, guraso eta ume bigaz osotuten zala. Umeez ziran Ekhi, zazpi urteduna ta Enkarna, bost urteko, bere arrebatxua.

Ekhi, mutilla, telebista zalea zan, ta bertan barriak ETB barriak emoten egoala, berak arrituta ikusi eban, zelan Zeledon, eleiza baten torretik, etxe batera etorren, aterkin bategaz, egaz egiten ebala edo... Eta bere aitari diñotso:

—Ondiño ez gara joan Gasteizera. Nik zelan Zeledonek aterkin bategaz, egaz egiten dauan ikusi gure neuke. Bear bada ikasi egingo dot zelan aterkiñagaz egaz egin leikean. Ala egingo dot neuk be.

—Egia diñozu, laztana. Baña aurtengoa joan da ta, datorren urtean eroango zaituet danok. Ori ta beste gauzak be ikusiko doguz

Urrengo urtean, Ekhi aitari emondako berbea gogoratu eutson, baña aita ez egoan aitzuta. Bere egunean, ba, urten ziran Gasteizeruntz. Elduaz batera, ainbat gauza ikusi ebezan. Barrakak, be, bai.

—Au bai ederra —iñoan mutillak—. Oneik bai kale xabalak eta luzeak. Mendirik, be, ez da ukusten gero. Basaurin, barriz, aldatza, tontorra ta desberdintasuna dago kaleetan. Motza ga gurea!

—Bai, olantxe da, laztana. Baña au Euskadiko iri-burua da!

Orduak aurrera yoyezela, eldu zan Zeledon agertzeko sasoi. Suziri, bonba eta abar entzun ziran eta turuta jo be, bai, eta, ago batez esan eben:

—Oraintxe, oraintxe, jatziko da. Oraintxe dator Zeledon.

Danak egoazan adi, baña Ekhi, adiago, begiek urten bearrean. Berba egiten ebenak, urduri ipinten eben eta danai, ixillik egon eitezela, esaten eutsen An etorren, ba, zorioneko Zeledon baserritar jantzita, txapelagaz, aterkiñagaz eta puro galanta erretan ziar-duela. Pozik egoan mutilla. Baña, onik onenean kon-

turatzen da, Zeledon kordel edo kable batean etorrela eta, ames gutzia otziturik diñotso aitari:

—Ba, ba, ba! Guzurreta dana' Lokarriagaz, edozeñek! Neuk be, bai. Ori ez da nik uste nebana. Aterkiña ez da naiko? Orain nik zelan ikasiko dot, ba, aterkiñakin egaz egiten? Jakin izan banau!

Gero, egiazko Zeledon, etxetik kalera jazten ikusi ebanean, ardura aundirik ez eutson artu. Artu eban desengañua itzela izan zan-ta!

Urrengo ainbat gauza eder ikusi eben urian. Jan eta edan, be, polito egin eben, eta gozokiak erosi ta erosi erain, ezin esan leiken beste. Biderako be, neikoa eroien.

Gaba sartuta egoala, urten ziran Gasteiztik etxerantz. Dana yoian ondo, areik eta Orozko aldera eldu ziran arte, Zergaitik ezekiela, berebilla geratu yaken. Ez aurrera, ez atzera. Begitu, begitu eta aberiarik etzan agiri.

Ez eben izan beste biderik, auto stop egiten asi baño. Etozen berebillak geratzen ziran, baña, oneik itanduten ebanean:

—Zenbat? —Eta areik erantzun:

—Lau gara —ez egoan eurentzat modurik. Danakaz bardin.

Orduan berebilla, bazter batera eginda, inguruan egoan baserri batera jo eben. Berandu izan zan arren, etxeoandreak atea zabaldu ta itandu eutsoen, zer gure eben. Eta jakiñik ostatua gure ebela, berebilla, aberiagaz, bide baztarrean itxi bear izan ebela-ta, diñotse:

—Bizitza biko etxea. Gurean ez dago lekurik, baña bestaldea, bilbotar batzuen da. Gitxitan etorren dira, eta nik daukat giltza. Jatekorik bear dozue? —Eta eurak erantzun eutsoen:

—Ez, eskerrik asko, ondo janda gatoz.

Prestau ebazan gela bi izara garbiekaz. Aita eta

ama Enkarnagaz batean geratu ziran. Ekhi, barriz, bestean. Eta emen asten da bere "trajedia". Dakizuen lez, gozo zalea zan ta etxerako ekazen gozoak, gabako maitxuan itxi ebazan. Sartu zan oean ta loak artu dagola, zaparradak entzuten dauz. Argia biztu ta, bere gozoak jaten ikusten dauz. Iñor bizi ez etxean, ta, arratoiak gosekillak egoazan. Batak besteari kentzen ebiltzan. Argia amatau ta joango ziralakoan, euren eztarriko txirri-txirri entzuten yaken. Barriro biztu ta nun ikusten dauzan arratoi gosekillak, len baño geiago, txilioa, jan gurean, emen, an, orretariko ainbat pizti zikin, iguingarriak.

Izara barruan sartu eban burua, baita, oraindaño jan barik egoan gozo zatia. An ziarduan bera, azken zatia jaten. Burua atara eban ta loak artu eban, baño ezpanetan gozo zatitxua bat edo, geratu yakon. Eta, lo egoala, ara nun yatorkon arratoi bat, ezpana mizkatzen eta, pozik egoalarik, buztenagaz, begiak eta sudurra laztantzen. Itxartu zan eta danagaz konturatu zanean, tapak jaurti ta asten da arrantzaka eta ariñeketan doa gurasoen gelara. Aren dardarea, aren txilioak, arek oñakin egiten ebazan tapa-tapakadak... Esan leikean historiak emon utsola. Aita eta amaren esanak ezin eben baretu. Azkenez aitak esan eutson:

—Zu amesetan zagoz. Jan ta edan lartxu egin dozu-ta, orain, ames. Zoaz barriro oera ta egizu lo.

Esan baeutson esan, asten da mutilla, amarik samatik elduta, barriro arrantzaka eta diñotso aitari:

—Lenago, il, aita. Ilten banozu be, ez naz joango, arratoiak jango nabe-ta. Eta gero geiago negarrez, baño arrantzaka, ziarduan. Amak orduan:

—Etzara joango, laztana. Amatzuk ez dau guzurrik esaten. Geugaz egingo dozu, lo. Ala. Sartu emen.

Gizonari esan eutson gero:

—Ilten ezbayaku, gero..., nerbioetako atake one-gaz. Kontuz, gero. Zeuk daroazuzen "Bellergan" pastillak emongo dautsoz. Bi artu ebazan.

Goizaldian, jagita, oraindaño erdi lo egoan artu ebazan pastilla zirala-ta. Berbarik ez eban egiten baño aiztuta lez egoan.

Gero danok joan ziran berebil ondora. Aitak, egun argiz, begiratu ta ikusi eban "Tximist argiaren" lokarritxu bat erreta egoala ta ori izan zala aberi guttia. Jatzi errira ta akeita-esnea artu eben danok, eta poz-pozik abiatu ziran Basaurirantza. Eta olantxe amaitu zan Ekhiren "trajedia" eta beste iruren ardurea.

ARGINTXONA'TAR MATAI
(ZARRAGOITI)

ZER

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1

LAU URTEKO NEURE IBILLERAK (V)

PIÑUDIETAKO SUAK

Bouridens'en gengozala, suak izan ziran bi bidar, inguruko piñudietan. Egun baten, aste batzutan lanean jardun genduan piñu sailla amaitu genduan. Bazkal ostea zan, eta ain zuzen be larunbata. Atxaki polita beraz, arratsalde aretan opor egiteko, garbiketak-eta, egin bear genduzala ta. Astelenean joango giñan sail barrira. Ta geure laneko tresnak, aizkorak eta abar artuta etxera joan giñan.

Ta an atadian gengozala, basoan keia jagiten zala konturatu giñan. Ain zuzen be, geu aurreratxoago lana amaituta etorri giñan alderdia zan. Ta kezkatu egin giñan.

Alan gengozala, andra bat txirringa gaiñean igaro zan estu-estu ta guganuntz eskua jasota marmarka joan zan. Ezagutzen genduan alkar arpegiz andra arek eta guk, lan tokira joateko batzutan, euren baserri ondolik igaroten giñan-da. Ez dakit suaren errua guri jaurti nai eban edo zer esan eban.

Itxurea zanez, eliz kanpaia jo eien joan zan; ordutik laster elizatzoko txiliña asi zan tilin ta talan. Beraz, besoak gurutzetuta ezin izango giñan geratu. Gaiñera, peri eguna zan auzoko erri baten eta gure errian katurik be ez egoan. Ta sua amatautera edo al zana egitera joatea erabagi genduan.

Piñudietako sua zer zan ez genkian ordurarte, eta bera itzaltzeko zer lan egin bear zanik be ez. Guk uste genduan (edo nik beintzat), suak aurrera egin ez eian, zugatzak lurrera jaurti bear zirala. Beraz, aizkorak eta serrea artuta joan giñan txirringan.

Iñor ez genduan ikusi bide guztian, eta basoan be iñor ez genduala arkituko uste genduan; baiña ba-zan an jendea! Kirri ta karra egoan sua sasi ta zugatzak erreaz. Gu eldu giñan alderdian, su andiak ekarren zuzenbidean, an eta emen su txiki batzuk egozan; eta txirringariak kontroletan egiten daben lez, itsuzaparradan oiñak lurrean ipiñi ta bizikletea edozelan jaurtiaz, su aretako bat aizkoraz blisti-blanta amatau naian asi nintzen. Ori ikusirik, an urrean egoan gizon batek, besotik oratu ta geratu eragin eustan. Sua amatauten ez lagatea zegaitik ete zan arrituta geratu nintzan berari begira. Gero jakin nebenez, su txiki areik, erderaz "contrafuegoa" k deitzen jaken orretarikoak

ziran. Au da, suari aurea artu ta erregarriak, sasi ta abar erre, zer erre ez daukola arkitzean, amatau eitean.

Gure lagunetako batek oraindik nik baiño gogorragoa egin eban: ara elduaz batera, itsumustuan, lenengo arkitu eban zugatza, zugatz txikia, aizkoraz eratsi. Gure jokerea ikusirik, euren bostian, euren artian, zorotzat artuko gin duezan.

Jendia nasai egoala ikusirik, geu be nasaitu egin giñan. Alako baten, piñu adarrak eskuetara emon euskuezan eta kontrafuegoaren atzetik, beste gizon aldra bategaz lerroan jarririk, eurak biztutako su ari jarraituaz, jo ta jo, amatau egin genduan, Lan a amaitu genduan, geldirik barrira.

An ezer ez genduala egiten ikusirik, etxera bihurtutako gogoa egin jatan, ba-neukan zeregiña be ta. Ta lagunai esanaz, eurak an lagata, txirringa artu ta etxeruntz asi nintzan.

Bidean, gendarme bat buru ebela, iru-lau lagun etozan sua zan alderuntz eta bide-txiñorra zan-da, geratu ta alboratu egin nintza eurak igaro eitezan. Baiña gendarmea be geratu egin zan eta ia nora niñoiñan itaunka asi. Nik orduan, sua amatauten izan nintzala beste iru lagunegaz, baiña an ez egoala estutasunik eta lagunak lagata, etxera niñoiñala, lan batzuk nitualako. Ori esan nai izan neutsan, baiña Jaungoikoak daki zer esan neutsan nire gaztelera ta prantzez naste aregaz. Eurakaz joan neiteala agindu eustan eta an joan nintzan danen atzetik.

Sua zan tokira eldu ta denpora apur baten ezer ez genduala egiten ikusita, ia etxera joan ete neintekean itandu neutsan ta baietz erantzun eustan, joan neintekeala. Ta etxera bihurtu nintzan. Ordutik ordubetera, beste lagunak be etxean ziran. Ez zan su andia izan.

¡Baiña bai urrengo baten! Urreragoa ikaragarrikoa izan zan.

Arratsalde baten lanean geniarduala, kei kolorea artu eban zeruak. Lenengoan, odeiak ete ziran, gurmea ete zan egon giñan. Baiña laster konturatu giñan zer zan. Airetik kedar tanta txikiak jausten ziran. Sua egoan nunbait, ezpai barik. Baiña, basoan gengozan tokitik, itxasoa lako lurral-

de zabala ikusten genduan arren, sua nun zan ez giñan konturatzen lenengoan. Gero bai, gero ikusten zan; gugandik amabost kilometro inguruan zan sua.

Ba-geniarduan lanean, baiña su aretxek kezkea emoten eustan. Ta geuk etxera eroan bear genduan bidearen zuzenbiruntz etorrela ta bidea itxi ta txarto ibiltea jazo ez ekigun, lenengotik alde egin bear genduala esaten asi nintzan. Ordu bi ba-ziran suagaz konturatu giñala ta lagunak be nigaz bat etorri ziran eta etxera biurtu giñan.

Oraindik urrun egoan sua gure erritik, baiña bertarako zuzenbidea ekarren. Naikoa aize zan eta erriaren gaiñetik, goi samar, ikaragarrizko kei lodia igaroten zan abiada bizian, zabaleran beti neurri bardiña ekarren kei moltsoa. Amai bako izara (maindire) andia zirudian. Gure alboko etxeko emakume bat, adiñeko andrea, etxe ingurura ura jaurtiten ebillen begietan negarra ebal.

Genkusanak larriagotu egin eban gure kezkea, Sua gugana eltzen bazan, erri guztia erreko ebal uste neban, ango etxe guztiak (egia, danetara be gitxi) inguruan piñu andiak eukezala egozan da. Beraz, nun zear asiko giñan olakorik jazotean bazan? Bide gurutzean bizi giñan. Jakiña, sua etorren aldera ez giñan joango, baiña beste iru bide geunkazan aukeratzeko ta ba-genkian euretatik birek nora eroaten eban.

Maletea artu ta iñora astea ez jatan ondo ereizten, eta au oldoztu neban, zera, sua errira etorten bazan neure jantzi ta trasteak maletan sartu ta ur putzura jaurti ta alde al zan tokira. Baiña, denporeagaz, orrenbestekorik ez zala izango itxurea artu neban.

Sua urreratu zanean (illunduta egoan ordurako) bertara joan giñan ezer egin bear bazan al genduana egiteko. Suzko itxasoa zirudian. Itxasoan ekatxetan olatu andiak amorrus danen gaiñetik aurrera egiten daben antzera, aurrera egiten eban dana erreaz.

Gizon aldra andi bat, gitxienez eun, kontrafuegoa egiten asi giñan, piñu adar orritsuakaz danok batera joaz. Joranez ekiten geuntsan lanari, ondamendiari arresiak ipiñi naian. Ta izerdi patsetan zaletasunik andienagaz jo ta jo geniarduala, beste alderdi batetik suak aurrera egiten ebal esaten gizon bat etorri zan. ¡Agur gure alegiñak!

Dana alperrik zala ikusirik, laga egin geuntsan lanari. Kezka bat eukan ango jendeak; sua igaro zan tokian atso-agurak bakarrik bizi ziran baserri bat egoala ta zar bikote aren zoria zer izan ete zan. Gerotxoago, arriskutik atara zituela, jakin genduan. Beraz, batetik suari ezer egiterik ez egoalako ta bestetik pertsona edo notiñen artean ezbearrik izan ez zalako, jendeak larritasunik ez eban erakusten. Ziur, ondamendi arek ez eutsan ikuturik edo kalterik egi-

ten erri aretako jendeari. Ta danori be besteen kalteak, batez be apur bat urrunekoan, min gitxi emoten dauskue.

Gure nagusia (ez zan erri aretan bizi) bere beribillaren ondoan suari begira ikusi genduan. Ez egoan alai gizañoa. Bere piñudiak be erre ziran. Aste batzuk lenago geuk eba-gitakoak be bai.

Ezer egitekorik an ez genduala ta etxera etorri giñan.

Ez neukan lengo bildurrik. Arrabetera geunkan sua, baiña lotara joatea erabagi genduan; eta ezer arriskurik gugana eltzen bazan esnatuko giñala edo esnatuko ginduezala ta oean sartu giñan, ziur, apaldu barik, bada orduan ez genduan euki ez gogo ta ez astirik orretarako.

Esnatu giñanean, eguna argituta egoan, eta jakiña, aurre eguneko suagaz gogoratuta kanpora urten genduan zer ikusten ete zan. Dana, ixiltasuna ta bakea zan. Suak gure erri ondoan apur bat albora egin eban eta bakean itxi euskun. Gure etxea zan suaren alderdiruntz erriko lenengo ta eun da berrogetamar neurkin ingurutik igaro jakun bera ta beste amar bat kilometroan aurrera joan.

Nai ta basoa izan, beian edo lurrean sasi edo antzekorik ez bada, suak ez dau aurrera egiten; eta erriko piñadia garbia zan eta suak ez eukan an zer egiñik.

Geuri be kaltea ekarri euskun suak. Lan barik geratu giñan. Artzeko geunkan dirua ordaindu euskun eta geiago lanik ezin emon eikigula esan, nagusiak.

Burdeos'era joan naian gengoan aspaldian eta aukera ederra geunkan, orduan, geure gogo ori beteteko. Ta txirringaz egin genduan osterea. Bouridens'tik Burdeos'era 50 kilometro inguru izango dira. Ta sua izan zanetik bigarren egunera, bazkal ostean, geure txirringa zarren gaiñean jarri ta an joan giñan iru edo lau egun igaroaz ango bazterrak ikusteko asmotan.

Burdeos'ko sarreran bertan estatusuntxoia izan neban. Ni, lau lagunotatik azken niñoian eta bide gurutze baten, beste iru lagunak igarota egoazala errizaiñak gure bideko aruntz-onuntza geratu egin eban, bestekoai bidea iragiteko. Lagunak ez ziran konturatu ni an geratu nintzanik ta ba-joiazan aurrera. Ni barriz eurak eskutau bear zirala ikusirik, estu. ¡Egongo ez nintzan bada, poltzikoan ia txoritxiki bat barik (beste batek eroiazan dirurik geienak) ezagutzen ez neban erri baten neure burua, bakarrik, galduta ikusten neban-da! Didarka be ez neban nai asi lagunak geratu eitezan. Ta noizbait bidea iragi euskunean, txirringa gaiñera igoteko asti barik, paleto antzera korrika beste aldera joan nintzan eta txirringa gaiñean jarriaz alik bizkorren besteen billa joan.

GUDALDIA

Kai ondoan bultzia igaroteko egoan zubi ondoan geratu giñan ostatuz. Ango bar baten egiten genduzan goxaldu, apaldu ta lo. Bazkaldu ez, bazkaldu, eguerdian nun arkitzen giñan, antxe. Burdeos, Bilbo'ren antzekoa iruditu jatan, itxasontziz betetako bere ibai ta guzti.

Ez genduan ikusi ta jazo be ez jakun egin aintzat artu ta kontaten ibilteko erako gauzarik. Igari egiteko edo piscina eder bat ikusi genduana gomutaten naz; txakur erakusketa zala ta baubadea (zaunkadea) besterik entzuten ez zan toki itxi baten ondolik igaro giñana be bai. Arratsalde baten, ibai ertzari jarraituaz, emengo gudea zala ta ara joandako euskaldun eta españiar itxasontzi pilloa ikusi genduan, Donostia'ko Artzai Ona'ren dorrea baiño luzeagoa eukan eliza bat ikusi genduan, kanpotik; Sainte Catherine, angoentzat kale ospetsua be bai.

Egun baten, uste barik, bertako jaiak ziran auzune baten sartu giñan eta arratsalde atsegiña igaro genduan. Tresna zarra ugari egoan arrastroa be ikusi genduan. Baiña politena, an egin genduan bazkaria izan zan, edo bertako jazoera bat. Emen sartuko, or sartuko naikoa ibilli ta gero, sartu giñan nunbait. Txiro antza eukan, edo zuzenago esateko, guztiz mailla apaleko jatetxea zan; baiña ate aurrean BAR izena eukan jatetxe baten gutzat lain izango ebela ta toki apaiña izan edo ez izan, ardura gitxi euskun guri.

Bazkaldu nai genduala esan geuntsanean, edozetatik eskatzeko, nai genduana eskatzeko, erantzun euskun. Ta

erabagi genduan zer jan: Zukua edo sopea, arrautza utsezko tortillea ta okelea saltzan.

Ziur, orduan asi ziran gutzat zukua egiten; beintzat apur baten zain egon bear izan genduan, eta fideoagaz egindakoa ekarri euskuen. Ez zan oillo saldeagaz egindakoa. Alakoxea emoten euskuen geroago Langille Bata-lloietan, akeita esnerik ez eukenean, gosaritarako: ur utsez egindakoa.

Urrengo tortillea ekarri euskuen. Euren ustez, ziur, laurontzako zana; baiña guk biren artean artu genduan eta beste alakoxe bat egiteko esan geuntsan. Ao zabalik geratu zan etxekandrea ori entzutean. Ta egin eban bestea be.

Azkenez aragi tatoak, bildotsa-edo, tomate saltsan. Zati bat edo beste andiak ziralako, erdiko azurra ebagitea nai genduan. Etxekandrea geuri ondo ezin eginda gaiñean geunkan beti ta berak zerbait ekarriko ebala ta joan zan. ¡Zer ekarriko ta, Jaungoiko maitea, hojalatea ebagiteko erabilten diran burdiña ugartsuzko artazi andiak ekarri euskuzan! Ta aretxegaz ebagi genduxan. ¡Guk egin bear izan genduzan alegiñak barre purrustadari ezin eutsita!

Akeita bear bagenduan be ba-eukala esan euskun, baiña ez giñan akeita zaleak eta ez genduan artu.

Merke egin euskun bazkaria; ta ordaindu, agurtu etxekandre jatorra ta urten genduan. Gosea kendu genduan beintzat.

KAMINAZPI

1984-XII-19

Izarrea bestealdeko lurraldeetara
eldu dira gaur Euzkadiren samin oyuak.
Gure gudari illek —barre gara moztuak—
azur-giltzetan oroimen gorrien dardara.

Anai asarreak gun errean otzikara.
¡Gure gudari gaxo illak, il aaztuak!
Larritzen joatsuez oso zeuen orduak.
Erio barria dozue deika dantzara.

Gaurko egun au Euzkadin benetan gaiztoa.
Alkar eziñen olatuek poza itoa.
Goi ta beko gara illunpearen oñetan.

Zuok guari il aaztuok zakiguze
gorrotoak zulatzearen ezpata luze
eta basurdeak doazela odoletan.

D. BIDAGUREN

ETA NI ZER?

Nun nire amesetak? Lañorik laño nabil,
olatuak itxasorik itxaso antzera,
itxaropen aideetan batetik bestera.
Illargia an goian urrunagotik dabil.

Neure odol beroaren burrukak narabil.
Kanpora bearrez, ago betean, barnera
doakit. ¡Au mozkor gorri onen sakonera!
Lillura ta amets, dana itoa darabil.

Etsipen altzoan lozor dot gogo geldoa.
Lañorik lañojo joana galdua doa.
Illargia, odol gorria ta olatua.

Nork azkatuko marapillo onen sendoa?
Bakoitzak bere patua. Goldeak ildo,
eta ni zer? Antzera: Lurrerako galdua.

A. BIDAGUREN

EUSKERA ABERASTU

Gure euskera garbitu eta aberastu egin bear dogu. Zenbat esaera-zar, ain politak, bitxiak eta biziak galdu doguz.

Emen dakardazan esaldi geienak Azkue-ren iztegitik artu dodaz.

Batzuk, bizkaierara moldatzeko, apur bat aldatu egin dodaz.

Errezenak eta politenak bakarrik artu dodaz.

Abade = sacerdote, cura.

“Abadearen lapikoa, txikerra baiña gozoa”.

Adarra = cuerno, rama.

“Adarrez dator euria”. Lluve a cántaros.

“Adarra jo”. Tomar el pelo. (Baztertu daigun betiko “ulea artu”).

Adi = estar atento.

“Adi, adi, ze Jaungoikoa dagok adi”. Ten cuidado, que Dios te mira.

Adiskide = amigo.

“Adiskideari mailleatu, adiskidea galdu”. Prestar al amigo, perder el amigo.

“Adiskide andia” dala esateko, esaizu “adiskide mamia”.

Adiskidetu = reconciliarse, hacer las paces.

“Adiskidetuko dira, oilloak arrautze baltza egin baiño leenago”. Con el tiempo ya se reconciliarán, antes de que una gallina ponga un huevo negro.

Adu = suerte. “Adu onekoa”. De buena suerte. “Adu txarrekoa”. De mala suerte.

“Adu gaiztoa, ardotan ito”. Da mala suerte ahogarla en vino.

“Zugatz bakarra eta alaba bakarra, adu txarra”. Arbol solitario e hija única, mala suerte.

Aga = viga, columna.

“Agea dauka etxe onek”. Esta casa tiene casta, es de buen linaje.

“Zeruak ez dau agerik bear”, esaten jako, soloan eta lanean, zutunik, alperkerian dagoenari. El cielo no necesita columna (para sostenerse).

Agin = diente, muela.

“Gazte oneri agiñak bardindu jakoz”. A este joven ya le ha entrado el juicio. Ya le ha salido la muela del juicio.

Agindu = mandar, prometer, permitir.

“Nire barruak ez deust agintzen”. No me permite mi conciencia.

“Agintzazko urrea baiño, emondako zilarra obea”. Mejor es plata recibida, que oro prometido.

Aize = viento.

“Ze aize dauka orrek”. ¡Qué garbo tiene ése!

“Aizea buruan, eta ibilli munduan”. Buru-ariñagatik esaten da.

(Jarraituko dau)

GOIKOETXEA'TAR INAKI





Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1


Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.